



9. KOSTUEN EGITURA

Proiektua garatzeko espazioa CIFP Mendizabala LHII-k utzi digu ekintzailletza sustatzeko programa baten baitan eta ondorioz, momentuz, ez dugu espazioaren alokairuan eta argindar, aseguru eta abarretan kosturik. Horrez gain, proiektua gizarte-ekintza bezala ulertzen dugunez, J.ALAI kooperatiba bezala eratu dugu eta legezkeen irabaziak, urte amaieran banatuko genituzke kideon artean. Beraz, hauek dira aurrikusten ditugun kostuak:

Fungibleak

Material batzuen inbertsioa proiektuaren hasierarako baino ez da egin beharko, beraz gastu finkoa izango da. Hori dela eta, gero eta kit gehiago saldu, orduan eta arinago amortizatuko dira materialok:

Serigrafia pantailak emulsionatuta	120€	Finkoa
------------------------------------	------	--------

Horrez gain, beste material batzuk egindako kit kopuruaren arabera izango dira, beraz aldakorrak. Kasu honetan, 100 kit-eko hasierako loteko kostuak islatzen dira:

Dadoak	19,80€	Aldakorra
Errotuladore iraunkorrak	167€	Aldakorra
Egurrezko makiltxoak	97,50€	Aldakorra
Belkroa	101,68€	Aldakorra
Josteko haria	37,40€	Aldakorra
Fotokopiak:		
Liburuxka	30€	Aldakorra
Xake pegatinak	2€	Aldakorra
Paper itsasgarria	30,03€	Aldakorra
Serigrafiarako tinta	40€	Aldakorra



Banaketa

Banaketa-gastuak webgunetik erosten diren kit-ak banatzerakoan baino ez dira egongo. Eskaera-mota hau txikia izatea aurrikusten da, hori dela eta Correos bezalako kanpo-zerbitzu baten bidez egingo da. Online eskaera uste baino handiagoa izatekotan, banaketa modua berraztertu beharko da. Bidalketa bakoitzari dagokion kostua denez, aldakorra izango da kostu totala; hala ere, bezeroari 5,50 euroko bidaltze-gastuak erantsita bezeroak berak egingo dio aurre kostuari.

0x50cm-ko gutunazalak	0,40€	Aldakorra
Correos bidalketa	5,06€	Aldakorra